


1. BALIO PROPOSAMENA

Gure familiei gakoak emanez haurren heziketan laguntzea da gure helburu garrantzitsuena. Horrekin batera, Euskara eta Euskal Kultura sustatzea ahalik eta modu atsegin eta dibertigarrian.

Euskara eta Euskal Kultura modu atsegin eta dibertigarrian sustatzea bilatzen dugu, haurren zein familiengan parte-hartzea eta motibazioa sustatuz. Horretarako, jarduera interaktiboak, jokoak, ipuin kontaketak, kanta eta metodologia edota pedagogia desberdinak (Pikler, Montessori, Waldorf...) eskaintzen ditugu.



1. irudia

Familiari haurren heziketan laguntza eskaintzea ere, Euskara sustatzearekin batera gure helburu nagusietako bat da. Haurrari bere garapen osoan laguntzen diogu, soziala, afektiboa, kognitiboa, psikologikoa... hau gure pedagogiei esker lortzen dugu. Gure ludotekak metodologia berritzaileak eskaintzen ditu, hurrengo belaunaldien garapena sustatuko duena. Horrez gain, langileek formakuntzak jasotzen dituzte hau aurrera eraman ahal izateko, eta gaiaren inguruan gehiago informatzeko.



2. irudia

Askotan ikasleek gogo falta izaten dute baliabide faltak direla eta, eta honek euskara sustatzea eragozten du. Horregatik, baliabide batzuk emanez, Euskara eta Euskal Kultura sustatzea lortu nahi dugu, euskal dantzekin, ipuin kontaketekin, mitologia jorratuz, irteerak eginez, ohiturak/tradizioak ikusiz, eskulanak eginez, euskara sustatzeko jostailuak eskainiz, eta abar.

Azken batean, gure balio proposamena familia eta haurren arteko loturak indartzea da, hezkuntza prozesua atsegina eta erraza bihurtuz, eta aldi berean, Euskararen eta Euskal Kulturaren transmisioa modu natural eta atseginean eginez.

Albiste Honetan argi ikus dezakegu euskararen galera:

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. (2022).
Udalerri euskaldunetan atzeraka ari da euskararen
erabilera, eta galera nabarmena da.

Albiste hemendik hartu da:



ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. irudia → AA-rekin sortutako irudia. Chat Gpt-ekin sortutako irudia (2025). Deskribapena: Ludotekako gela bat.

2. irudia → AA-rekin sortutako irudia. Chat Gpt-ekin sortutako irudia (2025). Deskribapena: Ludotekako gela bat hezitzaile batekin eta haurrekin.

→ (S/f). Uema.eus. berreskuratua 2026eko urtarrilak 9

<https://www.uema.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20221116-udalerrri-euskaldunetan-atzeraka-euskararen-erabilera-galera-nabarmena.aspx>